

*Patxi Olaetxea Iturralde*  
*Imotz, Nafarroa (1922)*

Aurkibidea

## Biografia

Imotz bailarako Goldaratz herrian jaio zen 1922. urtean, Loperena baserrian. Aita Larraun bailarakoa zuen, ama Imozkoa. Baserriko lanetan jardun zuen urte luzez lurra landuz eta abereak zainduz (behiak, behorrak eta ardiak). Ehizan ere aritutakoa da. Zenbait urtez Irurtzunen ere bizi izandakoa da, eta azken urteetan Iruñean. Elkarrizketan bere anaia Manuel Olaetxea ere agertzen da (Goldaratz, 1926).

## Zintak

### IMO-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Apalauza, Amaia - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2009-04-15
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

## IMO-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Apalauza, Amaia - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2009-04-15
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

## Pasarteak

### 1. Kokilak arbola-zulatzaille

- **Erref:** IMO-002/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:04:17. **Bukatu:** 00:06:17

#### Gaia(k):

- Natura » Fauna

#### Laburpena:

<p>Goldaratz inguruan kokilak (okilak) ikusten ziren. Kokilek enbor zaharrak zulatu eta zulo horietan egiten dute habia. Badira zenbait klase, adibidez kokil beltza eta kokil horia.</p>

### 2. Muxarrak harrapatzen zituenekoa

- **Erref:** IMO-002/004
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:37:00

#### Gaia(k):

- Natura » Fauna

#### Laburpena:

<p>Patxik muxarrak (katagorriaren itxurako beste animalia txiki bat) harrapatzen zituen gaztea zela. Muxarrek lo egiten dute negu osoan eta udazkenean jan eta jan egoten dira, loditzeko. Patxik tranpen bitartez harrapatzen zituen eta etxean izaten zituen. Sagarra eta ogia ematen zien jateko. Jateko gozoak dira. Muxarrak lodi-lodi egoten dira garai horretan eta koipe hori medikuntzan erabiltzen zen, minak sendatzeko.</p>

### 3. Patataren "eskarabajoa"

- **Erref:** IMO-002/006
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:56:18

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

#### Laburpena:

<p>Gerra ondoren patata berria iritsi zen Euskal Herrira, patata alemana. Patata klase berri horrekin batera patata-zomorroa ere iritsi zen, ordura arte gure artean ezezaguna zena eta izenik ere ez zeukana, eta harrezkero "eskarabajo" izenez ezaguna dena.</p>



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)